

1 / 08

# Irizpenea

EAEKO PORTUEN

Legearen Aurreproiektuari  
buruzkoa

Bilbo, 2008ko otsailak 1



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico  
y Social Vasco

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea  
Gran Vía, 35-1. solairua  
48009 Bilbo  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Servicios Gráficos, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-354-08

# Irizpena

## I AURREKOAK

2007ko abuztuaren 1ean, Garraio eta Herri Lan Sailaren idazkia aurkeztu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Idazki horren bidez, EAeko Portuen Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena eskatu zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatu denaren arabera.

Lege Aurreproiektu horrek EAeko portuen sektorearen araudi orokorra jorratzen du, betiere Autonomia Estatutuaren 10.32. artikulua dela bide Euskal Autonomia Erkidegoak portuen arloan dituen eskumen eskusiboak erabiltzeko. Araudi horretatik kanpo gelditzen dira onura orokorrekotzat jotzen diren portuak eta soilik Estatuaren eskumenak diren portuak; izan ere, orain arte arautegi izaerako arau sakabanatu eta zatituen bidez eta Estatuko arlo horretako legeriaren ordezkari aplikazioaren bidez eraendu da portuen sektorea.

Abuztuaren 1ean, dokumentua eman zitzaizen Batzordearen osoko bilkurako kideei, beren proposamenak eta iritzia eman zitzaizkien. Lan Batzordeari eman zitzaion horien berri, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduaren arautegian ezarritakoarekin bat etorritik.

2007ko azaroaren 6an, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen lan-saioan, irizpen-aurreproiektuaren lehen proposamena eztabaidatzeko, eta azaroaren 13an ondoko irizpen-proiektua onestea erabaki zen. Ondoren 2008ko otsailaren 1ean ospatutako osoko bilkuran onetsi da.

## II EDUKIA

Hauexek ditu kontsultan jarritako Lege-aurreproiektuaren testuak: zioen azalpena, 67 artikulua, 2 xedapen gehigarri, 5 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

## Zioen azalpena

---

Zioen azalpenean azpimarratu egiten da Euskadik itsasoarekin eta portuko jarduerarekin duen lotura historiko, ekonomiko eta sozial ukaezina, arrantzaren, merkataritzaren eta industriaren sektoreen bidez kostaldeko herrialdeak garatzeak izandako eragin ekonomiko handia eta orokorra, baita itsas kirolaren hazkundearen eta Euskadiko kostaldearen turismo garapenaren eraginez kirol portuak agertzea eta berrantolatzea ere. Izan ere, garapen hori ezin gelditi daiteke portuen araubide koherente eta orokor batetik aparte.

Arlo horretako eskumenen testuingurua azaltzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du, salbu eta onura orokor gisa sailkaturiko portuak eta maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez gauzaturiko ondasun eta zerbitzuen esku-aldaketak ere. Gainera, arlo hori portuen lege propioaren bidez osotasunean jorratzeko euskal legegile autonomikoak eskurik hartu ez duela aipatzen da, eta azkenik EAEn titularitateko portuen araudia ezin atzera daitekeela adierazten da.

Zioen azalpenak jarraitu egiten du, eta azkenik aurreproiektuaren edukiaren azalpenarekin bukatzen da.

## Xedapenen zatia

---

**I. tituluak** portuen oinarrizko kontzeptuak, eskumeneko eremua eta administrazio antolaketa zehazten ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

- **Lehen kapituluak** legearen xedea ezartzen du, hau da, EAEn eskumeneko portuen herri jabaria eta EAEnko portuen administrazioaren funtzionamenduaren egitura arautzen da, baita honako hauek ere: EAEn eskumeneko portuak finkatzea eta portuko jarduera bereiziko aldeak zehaztea, portuen plangintza, erakuntza, antolaketa, kudeaketa, erabilera-araubidea eta erabilera ekonomiko finantzarioa arautzea, portuko zerbitzuak emateko araubidea eta zerbitzu horiez jabetzea eta erabiltzea, zehapenen eta zigorren araubidea ezartzea eta EAEnko portuak administratzeko ikuskapen eta zaintza ahalmenak ere.

Bestalde, EAEn eskumeneko eremu aztergaia mugatu eta portuaren eta portuko instalazioaren kontzeptuak zehazten ditu.

- **Bigarren kapituluak** portuen administrazio antolaketa finkatzen da, eta EAEnko Administrazio Orokorraren Sailari eratziki zaio portuen arloko eskumen eskusiboa erabiltzea, erakunde horrek eskumena baitu portuen eta itsasoko gaien gainean bere organo egokien bitartez. Arlo horretan dituen eskumenak zerrendatzen dira, eta bertan xedatuenez, erakundeek eta gizarteak portuen eta itsasoko gaien gainean duten partaidetza arautegien bidez sortu beharreko kontsultarako eta partaidetzarako organoen bitartez gauzatuko da.

**II. tituluan** lurraldearen eta hirigintzaren antolamendua, antolamendu hori portuen sektoreko plangintzan bideratzea eta EAEn titularitateko portuen ustiapena jorratzen dira.

- **Lehen kapituluak** portuen plangintza jorratzen du, eta portuak antolatzeko oinarriko tresnak ezarri eta arautzen ditu, baita EAEn Portuen Lurralde Plan Sektoriala, Portuen Plan Bereziak eta portuetako instalazioen erabilera ere, definizio, eduki eta tramitazio egokiarekin.
- **Bigarren kapituluak** portuetako zerbitzu-guneetan haizu diren jarduerak, instalazioak eta eraikuntzak eta portuetako erabilera posibleak zehazten ditu: merkataritza eta industri erabilerak, arrantzako erabilerak, itsaso-kiroleko erabilerak, erabilera mistoak eta erabilera publikoak.
- **Hirugarren kapituluak** EAEn titularitateko portuak eraikitzea, handitzea, berritzea, mantentzea eta kudeatzea jorratzen da, eta herri lanaren emakidaren bidez ekimen pribatuak egiteko modua ematen duten baldintzak ezartzen ditu, betiere emakida horren prozedura, emateko modua eta edukia arautuz.

**III. tituluak** portuen herri jabariaren kudeaketa arautzen du, partikularrek jabari hori erabiltzea ahalbidetzen duten moduen bidez, baita portuen herri jabariaren erabiltzaile orok bete beharreko funtsezko betebeharrak ere.

- **Laugarren kapituluak** xedapen orokorrak arautzen dira, eta EAEn portuen herri jabariari lotuta dauden ondasunak zehazten dira. Gainera, portuen herri jabaria erabiltzeko nahitaezko baimena edo emakida ezarri da, baita jabeek portuen herri jabarian obrak eta instalazioak egiteko udal lizentzia lortu beharra eta salbuespena ere portuko administrazioaren kasuan edo administrazio horren pentzura lan egiten duten hirugarrenen kasuan.
- **Bigarren kapituluak** emakiden eta baimenen araubidea ezartzen du, eta honako hauek arautzen dira: horien eremua, emakida prozedura, baliatzea edo grabamen ekintzak, emakiden berrikusketa, aldaketa, banaketa eta erreskatea eta emakiden eta baimenen iraungipena.
- **Hirugarren kapituluak** portuen herri erabileraren zaintzari buruzko azalpenak ematen dira, eta isurketak debekatuta dauden kasuak, aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeta, hondakinak hartzea eta dragatze-obrak arautzen dira.

**IV. tituluak** portuko zerbitzuei buruzkoa da, eta lehenik eta behin zerbitzuen kontzeptua eta zerbitzu orokorretan eta zerbitzu berezietan eginiko sailkapena ezarri da. Hala, bi kategoria horien barruko zerbitzuak ematen dira, eta zerbitzuok emateko araubidea ezarri da.

**V. tituluak** zaintza eta zigor araubidea arautzen ditu, legalitate, tipikotasun eta erantzukizun printzipioak oinarritzat hartuta. Portuen administrazioari eratzkitzen dio ikuskapen eta kontrol ahalmena, ahalmena ematen dio portuen administrazioari zenbait neurri hartzeko: portuen jarduerari eta ibiltzeko askatasunari eutsi

behar zaienean, itsasontziak edo itsasontzi handiak hondorutzen direnean eta bertan utzitako itsasontziak eta ibilgailuak daudenean. Gainera, ahalmena ematen dio portuen administrazioari maizterrak botatzeko arauturiko kasuetan. Arau-haustek tipifikatzen ditu, eta honako sailkapen hau egiten du: arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak. Bestalde, zehapenen zenbatekoak ezartzen ditu. Azkenik, arau-hausteen erantzukizuna, horiek preskribitzea, zigor ahalmenak erabiltzeko eskumena eta prozedura eta kautelazko neurriak arautzen ditu.

- ***Xedapen gehigarrietan*** Garraio eta Herri Lan Sailari atxikiriko EUSKAL KIROL PORTUAK S.A. eta ZUMAIAKO KIROL PORTUA S.A. sozietate publikoei eustea ezarri da, sozietate horien esku utzitako herri jabariko ondasunak sozietateoi atxikitzea eta portuaren herri jabariaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik eta zerbitzu orokorrak emateagatik ordaindu beharreko tasetan oinarrituriko araubide ekonomikoa; izan ere, tasa horiek irailaren 29ko 3/2006 Legeak aldarazi duen EAEko Administrazioko tasa eta prezio publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legeak araututa daude.
- ***Xedapen iragankorrek*** portuen plan berezien araubide iragankorra ezartzen dute, baita portuen herri jabaria erabiltzeko ahalmena ematen duten tituluei buruzko espedienteak, emakidak, portu autonomikoetako zerbitzuguneen egoitza erabilerak eta zerbitzu bereziak bihurtu diren portuetako zerbitzuen erabilera ere.
- ***Xedapen indargabetzaile bakarrak*** lege berriarekin indargabeturiko xedapenak zehazten ditu.
- ***Azken xedapenetan*** arauak urtebeteko epean garatzea ezarri da, bien bitartean indarrean izango diren arauak zehaztu eta Legea EHAAn argitaratu eta bihar-munean indarrean sartuko dela xedatu dute.

### III OROKORTASUNAK

Euskadiko EGABk balorazio ona egiten du legegintzako ekimenaren sustapena Euskal Autonomia Erkidegoko portuen sistemari aplika dakioken araubide juridikoa oro har arautzearen inguruan. Izan ere, testuko zioen azalpenak dakarren moduan, EAEko portuak eta bertan egiten den jarduera EAEn eskumen eskusiboak dira Euskal Autonomia Estatutuaren 10.32. artikulua dela bide, salbu eta estatuaren eskumenerako gordetako onura orokorreko jarduerak. Eskumen horren burutzapenarekin lotutako baliabideen eta zerbitzuen transferentzia laurogeiko hamarkadaren hasieran gertatu zen, eta Auzitegi Konstituzionalak ebatzi egin zituen autonomia erkidegoen eta estatuaren artean sortutako auziak otsailaren 19ko 40/1998 epaiaren bidez; hala, administrazio bakoitzaren eskumenerako eremuen norainokoa argitu zuen. Hala eta guztiz ere, euskal legegileak zati batez baizik ez ditu erabili bere

eskumenak, halako moldez non EA Eren titularitateko portuak zatizko araudietako xedapen hutsen bidez eraentzen baitira (arautegi izaerakoak), baita estatuko legeriaren ordez aplikatzen diren arauen bidez ere. Izan ere, EA Ek ez du oraindik bere araudia portuen sektorea osorik arautzeko. Portuen sektoreak, EA Eko gizarte bizitzan eta ekonomian sustrai sakonak eta eragin handia izateaz gain —zioen azalpenean aipatuak—, bere pisu espezifikoa eta estatuaren araudiaren bidez araututako portuen multzoetatik argi eta garbi bereizitako zenbait profil dauzkala gehitu behar dugu. Hori dela-eta, legeria koherentea behar da, euskal portuen beharretara eta zehaztasunetara egokitutako legeria.

Batzorde honek ikusten duenez, Lege Aurreproiektuaren zioen azalpenetan deskribapenak besterik ez dira ematen, betiere aurreproiektuak portuen arloko eskumenak erabat garatzea ezinbestekotzat jotzea baino harago joanda; izan ere, Batzorde hau bat dator ezinbestekotasun horrekin. Gainera, zioen azalpenetan ez da ezer esaten legegintza ekimenaren beste zioei buruz, ez legeria inspiratzen eta eraentzen duten printzipioei buruz, ez ezarritako xedapenen bidez lortu nahi diren helburuez ere, ezta hautaturiko aukeren zioei buruz ere, ezarritako arauen funtsezko elementuak diren eta EA Eren titularitateko portuentzat ezarri nahi den portu eredia osatzen duten elementuei dagokienez.

Euskadiko EGABk ezinbestekotzat jotzen du zioen azalpenak hutsune horiek betetzea eta, labur baina nahikoa informazioa emanda, arauaren euskarri diren zioak azaltzea, baita arau horren printzipioak eta xedeak ere.

Lege Aurreproiektuaren muina aipatu baino lehen, une batez Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko portuen sistema osatzen duten portuei erreparatuko diegu, horietan dauden erabilera eta interes desberdinak nabarmentzeko eta, beraz, portuotan dauden ezaugarri eta dinamika berriak ere bai. EA Eren titularitateko portuak, tradizioz, arrantza portuak izan dira, eta arrantzaren politikaren azpiegiturak dira, arrantzarekin eta horren eboluzioarekin lotura estua dutenak. Itsaso-kirol portuak eta aisialdirako portuak turismo eta aisialdirako politiken estrategien barruan sartzen den jardueraren euskarri dira. Bermeoko merkataritza portua, berriz, merkataritzaren eremuko portu bakarra da EA Eren eskumeneko portuen artean, eta eginkizun osagarria betetzeko asmoa du EA Eko merkataritza portu handiekiko, betiere garraio politika iraunkorragoaren barruan, non distantzia laburreko itsas garraioa sustatuz merkantziak errepidetik itsasora mugitzeko modua izango baita.

Lege aurreproiektuak ezarri nahi duen araubide orokorretik harago joan nahi dugu eta, EA Eren eskumeneko portuen sistema oso modu uniformearen arautu nahirik, euskal portuen behar eta ahalmen desberdinak aintzat hartzea proposatzen diogu Garraio Sailari, baita arau orokorra garatzeari ekitean beharrezkoak diren espezialitateak sartzeko modua baloratzea ere.

Bestalde, Pasaiako eta Bilboko portuak Euskal Autonomia Erkidegoaren titularitatekoak bihurtzeko balizko transferentzia ere aipatu beharra dago, Lege Aurreproiektuan ezarria, baita bi portu horiek sartzeak legea aplikatzeko eremuan dakarren jauzia ere, tamainaren, izaeraren eta beharren aldetik jauzi handia baita EAEko portuen egungo sistemako portuekin alderatuta.

Aurreproiektuaren edukiari dagokionez, oinarrizko zerbitzu publikoko elementuak eta ekonomia eta enpresako elementuak bateratzen diren arloa osatzen dute portuek eta portuko jarduerak, eta eredu desberdinak osaraz dezakete portuko sistema portua kudeatzeko araubidearen eta eratzikipenaren arabera, baita itsaso-lurreko jaberaria ustiatzerakoan eta portuko zerbitzuak ematerakoan eta sortzerakoan ezarritako banaketa publiko eta pribatu motaren arabera ere.

Lehenik eta behin portuen sistema kudeatzeko eredia aztertuta, era askotako formula posibleak daude teknikoki: herri administrazioak berak, portuen eta azpiegituren gaineko politika finkatzeaz eta betearazteaz gain, portuen plangintza, sustapena, garapena eta ustiapena burutzen du bere egituren eta prozeduren bitartez; edo bestela, formula deszentralizatuagoak izan daitezke, non eginkizun hori autonomia zabaleko gestioiko herri erakundeei eratzikitzen zaien —are gehiago, portuekin eurekin etor daitezke bat—, kudeaketa profesionalizatzeko eta enpresa eta hurbiltasun irizpideen arabera funtzionatzeko. Azkenik, kudeaketa beste operadore publiko edo pribatu batzuei agintzeko formulak daude emakiden bidez. Ildo horretan, Lege Aurreproiektuak lehen aukera hautatzen du, eta EAEko administrazio orokorreko portuen eta itsasoko gaien ardura duen sailari eratzikitzen dio portuen administrazio osoa. Eskumena transferitu zenetik autonomia erkidegoan dagoen egoeraren kudeaketa eredia hautatuta —aurreko ereduari jarraituz, gainera—, gure ustez emandakoak baino azalpen gehiago eman beharko lirarteke zioen azalpenean, eta ez EAEren titularitateko portuen sistema osatzen duten funtsezko elementuetako bat delako bakarrik (Aurreproiektuak diseinatua), baizik eta jarraian azalduko ditugun arrazoiak tartean daudelako.

Bestalde, portuen kudeaketa portuen eta itsasoko gaien arloko ardura duen sailari eratzikitzea kontraesan dago Garraio eta Herri Lan sailaren *Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailearekin* berarekin (EAEko Garraioen inguruko politika erkidea 2002-2012). Plan horren bidez, gauzatu egiten dira autonomia erkidegoaren garraio sektorearen politika, antolaketa eta plangintza, planak indarrean dirauen bitartean, eta portuen kudeaketaren arloan, *Euskadiko Portuetako Azpiegituren Herri Erakunde Kudeatzailea* sortzea aurreikusten du. Planetatik ekintzetara pasatzeko unea iritsita, zentzuzkoa da pentsatzea aurreikusitakoak ez bestelako formulak aukeratuko direla, erabaki berria hartzeko azalpenak eta justifikazioak emango direla.

Gainera, aukeratutako eredia, itxuraz, kontraesan dago sozietate publikoak izatearekin: batetik 2000an sortutako "Euskadiko Kirol Portua" S.A., Hondarribia,



Donostia, Orio, Getaria, eta Bermeoko kirol portuak kudeatzen dituen; bestetik, 2003an sortutako "Zumaiako Kirol Portua" S.A. sozietatea, Zumaiako kirol portua kudeatzen duena. Izan ere, kudeaketari buruzko ikuspuntu deszentralizatuagoa dute, erakunde arinagoak eta profesionalizatuta erabiliz, baina ereduaren benetako izaeraren inguruko zalantzak sortzen dira, baita administrazioaren beraren gestioaren ingurukoak ere: EAEko administrazio orokorraren beraren kudeaketa ez ote zaien soilik kirol portuei lotzen. Kirol portuen kasuan, berriz, kudeaketa deszentralizatuagoa du.

Bilboko eta Pasaiaiko portuak gaur egun gestioko autonomiaren bidez kudeatzen dituzte "portuko agintaritza" osatzen duten bi erakunde publikoek, enpresa irizpideen arabera, baina horien tamaina eta arazoak oso desberdinak dira EAeren titularitateko egungo portuekin alderatuta. Hala, Bilboko eta Pasaiaiko portuak legearen estalduran sartzeak —betiere horien eskumena EAeri transferituko balitzaio— zalantza handiak dakartza portu horiek Lege Aurreproiektuaren kudeaketara doitzeko moduaren inguruan.

Portuen kudeaketan eta oro har portuko eta itsasoko gaietan eskumena duen Garraio eta Herri Lan Sailak eta horren Itsasoko Gaietarako Zuzendaritzak ez bestelako erakundeek eta eragileek parte hartzeari dagokionez, Batzorde honek ikusten du ezen Lege Aurreproiektuan ezarritako ereduaren ezaugarri nagusia oso marjina txikia eta behar bestekoa izatea dela. Onura orokorreko portuen sistema, aldiz, oso irekita dago portuko bizitzan diharduten interes desberdinek parte hartzea, eta inplikaturiko administrazio, enpresa eta sindikatu nagusi guztiak eta portuko trafikoarekin lotutako sektore ekonomiko nagusiak Bilboko Portuaren eta Pasaiaiko Portuaren administrazio kontseiluen eraketan izateko modua ematen du. Erakundeek eta gizarteak portuen eta itsasoko gaien arloan parte hartzeko organoak eta kontsultatzeko organoak aipatu baizik ez ditu egiten Lege Aurreproiektuaren EAeren titularitateko portuen ereduak; izan ere, organo horiek arautegien bidez sortu beharko dira eta hauxe besterik ez da aipatzen: organo horietan beste herri administrazio batzuk edota administrazioko beste sail batzuk eta EAEko portuen eremuan interesa duten sektoreetako ordezkariak izango direla.

Batzorde honen ustetan, organo horien funtsezko elementuak Legeak berak finkatu beharreko gaia dira, eta onartezina da elementu horiek atzeratzea legea araudien bidez garatzeko modua izan arte. Besteak beste, ezinbestekotzat jotzen dugu organoen eraketa, horien oinarritzko eginkizunak eta jarduteko kasuak ezartzea, eta horretarako, oso planteamendu egokia egiten dugu: funtsezkoa dela portuetan jokoan dauden gizarte-ekonomiako interesen eta erakundeen interesen eremu zabala uztartzea organo horietan, bereziki sindikatueta eta enpresetako ordezkari nagusienak, portuko trafikoan diharduten sektoreenak eta udalerrienak, baita organo horien bidez hainbat gaitan parte hartzea ere, hala nola lurraldea eta hirigintza

antolatzeko oinarrizko tresnak egiteko portuko administrazioak erabakiak hartzeko prozesua eta portuko plaza bakoitza kudeatzeko erabakirik garrantzitsuenak.

Goian jorratutako gaiekin zati batez lotuta, garrantzitsua deritzogu aipamen berezia egiteari portuaren eta udalerrriaren arteko erlazioaren gainean. Lurralde mailan lotuta doaz ezinbestean baina elkarren mendekotasunean daude ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloan. Beraz, elkarlanerako eta elkar ondo ulertzeko prest izatea eta horretarako baliaturiko tresnak funtsezkoak dira portuek eta udalerriek udalerriko portuetako guneen inguruan dituzten interesen artean ezinbestean gertatzen diren tirabirak gainditzeko. Testuinguru horretan ikusten dugu ezen, Lege Aurreproiektuan, udalerriak nahikoa atzean gelditzen direla portuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailaren nagusitasunaren aurrean. Hori dela-eta, komenigarria dela irizten diogu azaltzeari Batzorde honen ustez, nahiz portuetako hirigintzako plangintzaren eta antolamenduaren eremuan, nahiz helburu bererako administrazio desberdinen eskumenak bateratzen diren edozein eremutan, beharrezkoa dela interesak batera bideratzea, lankidetzarako eta laguntzarako tresnen bidez eta jarduteko bakoitzak duen eremua errespetatuz, portuentzako eta portuak dauden udalerrientzako aurrerapen-irtenbideak lortze aldera.

Azkenik, Lege Aurreproiektuaren 57-61. artikuluetako arau-hausteen eta zehapenen arautzea aipatu behar dugu, eta adierazi behar dugu ezen Batzorde honek beharrezkotzat jotzen duela arau-hausteak berriz tipifikatu beharra, baita horien sailkapena eta horiekin lotutako zehazpenak ere, betiere zentzuzkotasun eta proportzionaltasun handiagoko irizpideen arabera.

### III OHARBIDE ESPEZIFIKOAK

#### **2. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenaren eremua portuen arloan**

Alde batetik, Lege Aurreproiektuak Legea aplikatzeko eremua zehazten duenez EAEn eskumenei lotutako kasuak zehaztasunez emanda (egungo kasuak zein balizko kasuak), Euskadiko EGABk ikusten du harturiko formulak ez duela erreferentziarik egiten eta, beraz, kasu bat gehitu beharko luke, non oraindik estatuaren titularitatekoak izanik ere EAEn titularitateari eratxiki dakizkikeen EAeko kostaldeko portuen instalazioak bilduko diren, hain zuzen transferentzia oraindik ez delako gauzatu edo, onura orokorreko portuetan dauden kirol eta arrantza kaiak direla-eta, onura orokorrekoak izateari utzi eta autonomia erkidegoari eskualdatu zaizkionak.

Aitzitik, lege aurreproiektuan erabilitako formulazioa oso konplexua bada ere, ez dira argitzen sortzen diren zalantzak, hain zuzen ere lege aurreproiektua EAeko kostaldeko zein portu eta zein instalazio konkreturi aplikatu behar zaion ezartzerako

orduan. Hori dela-eta, lehenago esana dugunez, badira bigarren mailako portuak edo portuko instalazioak EAeko kostaldean, onura orokorrekoak ez izan arren eta hori dela-eta EAeren titularitatekoak direla pentsatzeko modukoak izan arren, oraindik estatuaren eskumenen artean daudenak, transferentzia oraindik ez delako gauzatu. Halaber, Bilboko portuan emakidaren bidez kudeaketa independentea eskuratu duten kirol kaiak daude eta, portu nagusitik bereizi ondoren EAeren titularitatearen esku izatera legez pasatzeko modukoak izanik, eskumenaren administrazio titularra zein den ezartzeko zalantza planteatzen zaio kanpoko begiraleari. Hori dela-eta, alde batetik gomendagarria izan liteke xedapena modu arinagoan idaztea, eta bestetik, komenigarria izan daiteke EAeren titularitateko portuen eta portuko instalazioen zerrenda bat txertatzea, eta zerrenda horri legeria aplikatu beharko zaio, bai artikulua berriei dagokienez, bai testuaren amaierako eranskinari dagokienez.

### 3. artikulua. Definizioak

---

Euskadiko EGABk gomendagarria irizten dio gutxieneko baldintzak ezartzeari itsaso-lurreko jabariko eremu bat portutzat hartzeko zentzu hertsian, zeren eta, gutxieneko baldintza horiek ez betetzearen ondorioz, portuko instalaziotzat katalogatu beharko bailitzateke itsaso-lurreko jabariko gune hori; aurreproiektuaren testuan kategoria bata eta bestea bereiztea ez litzateke garrantzitsua izango arauen ondorioetarako.<sup>1</sup> Alferreko lana da gutxieneko baldintzak betetzen diren ala ez azaltzea, noiz-eta zenbait baldintza modu erlatiboan bete daitezkeenean. Pentsa dezagun, adibidez, garraio sare nagusiekiko lotura bermatzen duten sarbideak izan beharrari buruzko baldintzan, eta instalazio bakoitza tradizioz ezarritako katalogazio batekin batera egoten da.

### 5. artikulua. Eskumenak (Eusko Jaurlaritzarenak eta portu eta itsas gaien arloan eskumena duen sailarenak)

---

Aipaturiko xedapenak portuetan eta itsasoko gaietarako eskumena duen sailari eratzikitzen dio zerbitzuko eta zaintzako arautegiak onesteko eskumena. Batzorde honen ustez, tresna horiek egitean komenigarria izango litzateke portu guztiek beren berezitasunetarako zehaztasunak sartzeko modua izatea, betiere portuen eta itsasoko gaien arloan eskumena duen sailak ezarritako irizpide erkide orokorren arabera.

<sup>1</sup> 3.2. art. "Lege honen ondorioetarako, portuko instalazioak EAeko eskumeneko portutzat joko dira baldin eta, indarreko araudiarekin bat etorritik, eskumen horren titularitateak Estatuari ez badagokio."

### 13.6. artikulua. Zerbitzuguneetan haizu diren jarduerak, instalazioak eta eraikuntzak

---

Akats bat dago xedapen horretan bosgarren xedapen iragankorra aipatzean, hain zuzen aipatu beharreko xedapena laugarrena baita (egoitza erabilerei buruzkoa).

### 19. artikulua. Ekimen publikoa

---

Hauxe dago ezarrita arlo honetan: EAEk bere eskumeneko edo titularitateko portuak eraiki, handitu, berritu, artatu eta ustiatu ahal izango ditu, Legean ezarritakoarekin bat etorritz. Hala, disfuntzioak gerta daitezke portuak eraikitze eta handitzeko kastuetarako 12.2 eta 3. artikuluan xedaturiko baldintzekin. Hori dela-eta, komenigarritzat jotzen dugu 19. artikuluan aipatzea aplikatu beharreko legeria orokorrarekin bat etorri beharra, honako aldaketa hau eginda: "Lege honetan ezarritakoarekin bat etorritz" jarri beharrean hauxe agerraraztea: "**legeria aplikagarriaren ezarritakoarekin bat etorritz.**"

### 32.4. artikulua. Portuko herri jabaria erabiltzea

---

Estimatu egiten ditugu legegileak portuetako emakiden eta baimenen jardueren ondoriozko laneko arriskuen gaineko erantzukizunak argitzeko egiten dituen ahaleginak, baina gure ustez ez dituzte ahaztu behar, hala denean, euskal administrazioari berari legozkiokeenak, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen xedapenekin bat etorritz. Horregatik, egoki irizten diogu arauaren amaieran hauxe gehitzeari: "*...eremu horretan eta legeria aplikagarriaren arabera EAEren Administrazio Orokorrari legozkiokeen erantzukizunak gutxietsi gabe.*"

### 42. artikulua. Emakidaren edo baimenaren iraungipena. 43. artikulua. Emakiden erreskatea. 55. artikulua. Administrazio-botatzea.

---

Euskadiko EGABk ikusten duenez, emakidaren edo baimenaren iraungipenean, emakiden erreskatean eta administrazio-botatze kasuetan herritarren nolabaiteko babesik eza gertatzen da, estatu mailako onurako portuetan kasu berdinetan gertatzen diren ondorioak kontuan hartzen ez dituen eta xedapenetan kautela egokiak txertatuta konpondu behar dena.

### 50. artikulua. Zerbitzu bereziak

---

Portuko zerbitzuen arloan, bereizketa bat ezartzen du lege aurreproiektuak. Alde batetik, zerbitzu orokorrak daude, administrazioak berak emandakoak, eta zerbitzu bereziak ere bai, hasieran horretarako baimendutako partikularrek araubidearen

arabera eman beharrekoak. Zamilanak eta merkantziak ontziz aldatzea zerbitzu be-  
rezen artean sartzeak zalantzak pizten ditu hainbat arrazoi direla eta.

### Osagarria

---

Beharrezkotzat jotzen dugu portuko baimenen eta emakiden erregistro bat ezartzea,  
eta horren bidez, emango diren portuko baimen eta emakida guztien funtsezko  
elementuak eta baldintzak gardentasunez biltzea eta horiei publikitatea ematea.

## IV ONDORIOAK

Euskadiko EGABk egokitzen du Portuen Legeari buruzko Aurreproiektuaren  
tramitazioa, irizpen honetan eginiko oharrak egin ondoren.

Bilbon, 2008ko otsailak 1

O.E. Presidentea  
Antxon Lafont Mendizabal

Idazkari nagusia  
Javier Muñecas Herreras

Trizpēna

1 / 08

1 / 08

Dictamen